

# Zaldia



ARITZ GALARRAGA

**B**este klase sozial batean jaio izan banintz, nire animaliarik maiteena izango zen zaldia. Beste klase sozial batean diot, afizio garestiegia baita gu bezalako pobreentzat –nahiz jaio izan mendebaldeko herrialde aberatsenetako baten lurralde aberatsenetako baten herri aberatsenetako batean, ze zortea–; baina batez ere diruaz gain beste zer edo zer behar delako hipikarako, nolabaiteko distintzio bat, pentsatzen dut odolaren bitartez bakarrik eskura daitekeena. Ezin diot iskin egin ordea zaldienganako erakarmena sentitzeari. Izango da agian nire oheburuko pentsalariak, Montaignek, bere entsegu ezagunetan, baduelako pasarte hunkigarri bat, bitxia, ez baita ohikoa halako gordintasunez azaltzea bere bizitza pertsonala. Egun batez, zaldiz zeharkatzen ari zela Dordoinako lurra, erorketa bat izan zuen, kolpe handi samarra hartu eta konortea galtzeraino. Heriotzagandik gertuen egon zen unea izan zen, eta esperientzia gozo gisa deskribatu zuen gero, sorgorra. Bertatik atera litekeen ikasketa morala izan daiteke: ez zaiola gehiegizko beldurrik izan behar beraz heriotzari.

Marina Garcesen aitaren biografia ari naiz irakurtzen egunotan –bai, maila horretaraino iristen da Garcesekiko lilura–, zeina autobiografia gisa aurkeztu den hirugarren pertsona baten idatzia izan arren –bai, gauza arraroa–. Eta bertan aipatzen da Bartzelonako kanodromora eramaten zituela alabak, gauez, dena ilun: bonbilla horiak, apustuak... eta lau katu, traje eta kor-bata grisak jantzita. Kontxo, biografia pertsonalean arakatuta, zakurrik ez, zorionez, baina gogoan dut aitak behin Lasarteko hipodromora eraman ninduela. Eta Lasarte ez da zehazki Ascot, baina segur aski izango da, zaldiengatik noski, nire bizitzan klase altuko sentitzetik gertuen egon naizen momentua. Nahikoa jakiteko ez naizela sekula klase horretakoa izango, eta, batez ere, ez dudala izan nahi. ●



## “ERRAUSTEGIA ASTAKERIA HUTSA DELAKO HARTU NUEN PARTE MARTXAN”

### JOSEBA ALVAREZ, AUZIPERATUA

laz erraustegira egindako martxan parte hartzeagatik, hura antolatzea eta desordena publikoak egotzita, lau lagun Donostiako epaitegira deituak izan dira. Horieta bat, Alvarez: “Epaileari esan diot baietz, errauskailuaren aurkako martxan parte hartu nuela larrialdi klimatikoan errauskailua martxan jartzea astakeria hutsa iruditzen zaidalako eta protestatzea nire eskubidea delako. Hori bai, ni ez nintzen antolatzailea izan”. Epaitegi kanpoan, “protesta soziala ez da delitua, erraustegia da delitua”, adierazi du hainbat herritarrek. **2020/01/09**

